BETI EUSKERAZ

BETI euskeraz itz egin biar degu. Ori da gure izkuntza zarra jasotzeko biderik zuzenena ta egokiyena.

Ala adierazi du Eleizalde'tar Koldobika'k orain aurretik Bilbao'n egin duen itzaldi diztikorran.

Guziyok euskeraz itz egin biar degula ziyon euskera zale bikain arrek, eta ongi ziyon; berarekin gaude gu gai onetan.

Ongi edo gaizki, aldan bezela, besterik ezin bada erdal-itzak naztutuaz, baña, euskeraz itz egin.

Gero etorriko da garaya euskera garbitu ta chukuntzekua, chokoraturik erbesteko itzak; bañan orain, lenen lenengo lana euskeraz itz egitia da.

Euskeraz ari geran bitartian, naiz izkera mordollo ta nastua erabilli, badaukagu jasotzeko ta goitutzeko icharopena. Ez ba degu ordia euskeraz itz egiten, naiz euskeragaz gauza zoragarriak idatzi, naiz itz jator ta berriyak sortu, egiten deguna egiten degula ez degu ezerchore aurreratuko.

Erderazko sendagaiakin ez da gure izkera pizkortuko, euskerazkoak sendatu biarko dute izatekotan.

Biar biarrena degu euskal tankerak gordetzia, naiz tartian erdal itzak sartuko baditugu ere. Ez erdal tankera euskal itzak nastutuaz.

«Solaren kaloria disipatzen da.»

Parragarrizko izkera ortatik, zer edo zer icharopen izan leike, itzak chandatu leizke, jatortu liteke, erdal itzak izan arren euskal ichura badauka. Bañan:

«El euzkotarra lanza goras a Aberri.»

euskal itzak izango badira ere, ez da beñere bide onetatik euskera goitutzera irichiko. Alperrikako lanak izango dira mota onetakuak. Ortik beti erdera izango da jaun ta jabe: itzak besterenak izango dira, baña giltza beria du, erdera da.

Gure aurcho zoragarriak erderaz itz egiten asten diranian, besterik atsekabez entzuten ez dutelako, ara nola esaten duten:

«Ha venido la igeltzero.»

Ez dute esango:

«Albañila etorri da.»

Ez; lendabiziko chandaketa tankeran izango da. Euskal itzak gordeko dituzte asieran, gero piškaka piškaka sartuko dituzte erdal itzak.

Entzuten badiotegu «kaballua» ta «muñeka» ta abar, izango dira ikasi dituzten itz nabarmenak euskeran nastutu dituztelako. Bañan oraindik orrelako itzak ibilli arren euskeraz ari dira. Ala erdal ichuran asteakoan esango dute:

«Ha bisto la kaballua.»

Esan nai da, euskerasko itzak balira bezela; euskeraz aritzen ziranian ikasiyak dituztelako.

Argi ageri da beaz, aurchoak erderaz nastutzen asten diranian, lendabiziko gauza erdal tankerak artzen dituztela.

Orrek erakusten digu zer bide artu biar duten euskerara biurtu nai duten Euskal erriko seme zintzoak.

Joaterako ta etortzerako bide bera izaten da: batian aruntz eta bestian onuntz, bañan leku beretik.

Euskera ganako lei biziya daukaten euskaldun izan biar luteken askok, bide orretatik biurtu biar dute bada; euskal tankerai gogoz erasoaz, euskeraz biar bezela gero itz egiteko. Lenengo beti lenengoa. Gero etorriko dira ondorengoak.

Zer gogoz entzungo nioteken nik Euskal erriko seme askori:

«Mucho trabajatu degu ta deskantzatzera gatoz.»

A zer nolako irrintzia egingo nuken. Badatoz, esango nuke, bidian jarri dira, irichiko dira. Zer egun zoragarria izango litzaken ama Euskal erriarentzat egun atsegin ura.

Bañan, zorigaiztoz, ez gera oraindik egun orretara irichi.

Igari egin nai ta urtara beren buruak botatzeko bildurraz egoten dira-

nak bezela ikusten ditugu asko. Nai luteke bañan ez dira artara jartzen.

Bestetik berriz, erderaz trebe šamarrak daude, ta lendabiziko egunetik trebetasun ori euskeran ere nai luteke.

Ezin liteken gauza da ordia. Asieratik ezin maisu izango dira, ikasi egin biar dute, ta ikasteko oker edo zuzen, oker onenian geyago zuzen baño, ari biarko dute.

Bat batetan ongi, jator eta apain itz egin nai orrek kalte besterik egin ez dubela deizkiogu.

Lenago zer edo zer euskeraz itz egiten zuten askok utzi diote beren izkuntza ederrari lotzaturik irakurri dituzten gauza asko jakin dituztenian.

Euskeraz itz egin ez dutenak berriz, bat edo beste kendu ezkero, ez dute almenik euskeraz itz egiten asteko. Lotzatzen diralako abek ere.

Orra nola lotzaizuna gatik, euskeraz itz egiten zutenak baztartzen duten gure izkera zarra, ta lotzaizuna gatik ere ez duten itz egiten bestiak, orain arte egin ez dutenak.

Era onetan ezin izan genezake aurrerapenik batere.

Asko ta asko idatziko da, liburuak oparo argitaratuko dira, ta alaz guztiz gure izkera juango da galtzen egunetik egunera.

Etzan, biar bada, beñere ezagutuko gaurko egunian añako euskal ganako zaletasuna. Ta ala ere zer guchi aurreratzen degun. Atzera egiten ez badegu.

Gogoan eduki biar genduke beti, euskeraz itz egiten ez degun bitartian ez degula ezer ere egiten.

Euskera gañeko jakintasunak onak dira; bañan orain ez ditugu biarrekuak. Ez digu orain ainbeste ajola izan bear, zer nola ta nondik datorren izkera, nola antolatu ta apaindu liteken..... ez orain itz egin, ori da biar biarrekua deguna.

Gañerakoak, askotan izaten dira, euskeraz itz egiteko almenik izan ez, ta zerbait egiten dutela, jakintsubak dirala, maisu daudela, beren buruak agertu nai dituztenen egitekoak.

Orain daukagun lana: itz egitia da.

Ta orretarako zenbat erreštasun geyago jarri, orduban ta obe izango degu.

Zailtasun, neke ta korapilluak asmatzia kaltetarako besterik ez daukagu orain.

Itz egin biar degu orain, bañan.....

¡Beti euskeraz! M. ARRONIZ